



unicef

haurtzaro bakoitzarentzat

UNICEF Comité País Vasco / Euskal Herriko Batzordea

MEMORIA DE ACTIVIDADES 2022

ÍNDICE | AURKIBIDEA

1. CARTA DEL PRESIDENTE | [PRESIDENTEAREN GUTUNA](#) Pág. 03
2. NUESTRA ACCIÓN EN EL MUNDO | [GURE EKINTZAK MUNDUAN](#) Pág. 05
3. NUESTRA ACCIÓN EN EUSKADI | [GURE EKINTZAK EUSKADIN](#) Pág. 10
4. 2022 EN CIFRAS | [2022 ZENBAKIETAN](#) Pág. 17

1. CARTA DEL PRESIDENTE | PRESIDENTEAREN GUTUNA



Isidro Elezgarai Esteban

Presidente de UNICEF Comité País Vasco

En 2022, el mundo se enfrentó a múltiples impactos casi simultáneos, un escenario de polycrisis mundial en el que han confluído crisis ambientales, económicas y geopolíticas: el comienzo de una guerra a las puertas de Europa, la peor crisis de energía mundial desde 1970, la más rápida subida de la inflación global en años, el incremento de las tasas de desnutrición e inseguridad alimentaria, los efectos cada vez más evidentes del cambio climático y las consecuencias todavía palpables de la pandemia de la COVID-19.

Frente a los efectos de esta serie de crisis interconectadas, UNICEF actúa en más de 190 países y territorios en las diferentes áreas que afectan directamente el bienestar y la supervivencia de los niños y las niñas.

Por un lado, impulsando la mejora de **la nutrición y la salud**, asegurando el acceso a **agua potable y saneamiento**, y promoviendo hábitos saludables y de prevención de enfermedades a través de la **vacunación**. Por otro lado, poniendo el foco en **la educación y la protección**, para hacer frente a la exclusión social y paliar las desigualdades, promoviendo una oportunidad justa en la vida de los niños y niñas más vulnerables.

Asimismo, nuestra **acción en emergencias** es imprescindible. Vivimos en un contexto humanitario muy complejo que deja unas cifras devastadoras: más de 400 millones de niños y niñas viven en zonas de conflicto; casi la mitad de los niños y niñas del mundo viven en países extremadamente vulnerables al cambio climático y 8 millones de niños y niñas menores de 5 años están en riesgo de morir como consecuencia de la desnutrición aguda grave.

Estamos frente a un mundo cada vez más interconectado en el que los problemas derivados de las diferentes crisis se entrelazan haciendo imprescindible actuar en todas las áreas, pero sin olvidar que **los niños, niñas y adolescentes de Euskadi** son también vulnerables a este contexto de polycrisis mundial y forman parte de una sociedad cada vez más global como individuos de pleno derecho que son. La apuesta por **la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible** desde la perspectiva de derechos de infancia fomenta la transversalidad necesaria para atajar los problemas del mundo de hoy poniendo a los niños, niñas y adolescentes en el centro, como agentes activos de quienes dependerá el mundo de mañana.

Por ello, UNICEF Comité País Vasco no solo actúa en favor de la infancia en todo el mundo, también trabaja en la defensa de sus derechos en Euskadi dando voz a los niños, niñas y adolescentes vascos. En este sentido, hemos querido **fomentar su participación** en todas las decisiones que les afectan creando órganos estables de participación y habilitando canales a través de los cuales puedan hacerse escuchar. Además, desde el programa **Ciudades Amigas de la Infancia y los Centros Referentes en Educación en Derechos de Infancia**, así como a través de los **79 centros educativos colaboradores de UNICEF** en Euskadi, seguimos avanzando por dar a todos los niños y niñas las máximas oportunidades y garantizar su bienestar y su pleno desarrollo.

Nuestra labor, sin embargo, no sería posible sin el apoyo de las instituciones públicas vascas, nuestras empresas aliadas y las miles de personas socias y colaboradoras en Euskadi. **Guztioi, bihotz bihotzez, eskerrik asko!**

2022an, aldi berean gertatu ziren hainbat inpakturi aurre egin behar izan genion, besteak beste: gerra hasi zen Europako atarian; 1970etik munduko energia-krisirik larriena gertatu zen; azkeneko urteetako inflazio globalaren igoera bizkorrena izan genuen; munduko desnutrizioaren eta elikadura gabeziaren tasa nabarmen igo zen; klima-aldaketaren ondorioak geroz eta nabariagoak izan ziren; eta COVID-19aren pandemiaren ondorioak ere oraindik senti zitezkeen. Inpaktu horiek guztiek ingurumen-, ekonomia- eta geopolitika- alorretan eragina izan zuten eta mundu-mailako polikrisi egoera larria ekarri zuten.

Egoera horren aurrean, haurren ongizateari eta biziraupenari zuzenean eragiten dieten alorretan lan egiten du UNICEFek 190 herrialde eta lurralde baino gehiagotan.

Alde batetik, **nutrizioaren eta osasunaren hobekuntza** bultzatzen dugu; horretarako, **edateko ura eta saneamendua** eskuratzeko aukera bermatu eta **txertaketaren bidez** gaixotasunen prebentzioa sustatzen dugu. Beste alde batetik, **hezkuntza eta babesean** jartzen dugu arreta, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko eta desberdintasunak arintzeko, haur zaugarrienen bizitzatan bidezko aukerak sustatuz.

Era berean, **larrialdietan egiten dugun lana** ezinbestekoa da. Izan ere, zifra beldurgarriak uzten dizkigun egoera humanitario konplexuan bizi gara: 400 milioi haur baino gehiago gatazka-eremuetan bizi dira; munduko haurren ia erdia klima-aldaketaren aurrean oso kalteberak diren herrialdeetan bizi dira; eta 5 urtetik beherako 8 milioi haur hiltzeko arriskuan daude desnutrizio akutu larriaren ondorioz.



Gero eta interkonektatuago dagoen munduan, askotariko krisien ondorioak elkarri lotzen zaizkio, eta ezinbestekoa da arlo guztietan jardutea. Testuinguru honetan, ez dugu ahaztu behar **Euskadiko haurrek eta nerabeek** ere kalteberak direla munduko polikrisi egoeraren aurrean, eta gizarte globalaren parte direla eskubide osoko gizabanakoak diren aldetik. Hartara, egungo arazoei aurre egiteko beharrezkoa den zeharkakotasuna sustatzeko, **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak** haurren eskubideen ikuspegitik bultzatu behar ditugu; alegia, haurrek eta nerabeek erdigunean jarri behar dira, etorkizuneko munduko eragile aktibo gisa.

Horregatik, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak ez du soilik mundu osoko haurren alde lan egiten, Euskadin dituzten eskubideen defentsan ere lan egiten du, euskal haur eta nerabeei ahotsa emanez. Ildo horretan, eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzea sustatzen dugu, parte hartzeko organo egonkorak sortuz eta entzunarazteko bideak ahalbidetuz. Gainera, aurrera egiten jarraitzen dugu haur guztiei ahalik eta aukera gehien emateko eta haien ongizatea eta garapen osoa bermatzeko; batetik, **Haurren Hiri Lagunak** programaren bitartez; eta bestetik, Haurren Eskubideen Hezkuntza Ikastetxe erreferenteen eta UNICEFekin elkarlanean aritzen diren Euskadiko 79 ikastetxeen bitartez.

Gure lana, ordea, ez litzateke posible izango euskal erakunde publikoen, gure enpresa aliatuen eta Euskadiko milaka bazkide eta kolaboratzaileen laguntzarik gabe. **Guztioi, bihotz bihotzez, eskerrik asko!**

Isidro Elezgarai Esteban

UNICEF Euskal Herriko Batzordeko presidentea

2. NUESTRA ACCIÓN EN EL MUNDO | GURE EKINTZAK MUNDUAN

Emergencias | Larrialdiak



Ucrania | Ukraina

Con vuestro inestimable apoyo y capacidad de movilización, destinamos **1.723.132 € de ayuda de emergencia a Ucrania.**



Zuen laguntza eta mobilizatzeko gaitasunarekin, **1.723.132 € bideratu genituen Ukrainara.**

Tras el comienzo de la guerra en Ucrania en febrero de 2022, la sociedad vasca, sus instituciones y su tejido empresarial se volcaron para apoyar la respuesta humanitaria de UNICEF y ayudar a los millones de niñas y niños afectados por la violencia.

Obtuvimos el apoyo de las y los donantes particulares y las personas socias de UNICEF Comité País Vasco; del Fondo Alavés de Emergencias, la Diputación Foral de Gipuzkoa y los ayuntamientos de Bilbao, Getxo, Basauri, Zarautz, Ermua y Berango; de varios de nuestros centros colaboradores y de las empresas EROSKI, Grupo Uvesco, Vidrala, Fagor Taldea, Sidenor, Nervión Agencia de Valores, Aranzazu Hoteles, Irizar, Velatia, Lookiero, Krafft, DanobatGroup, SORALUCE e Izar Cutting Tools.

2022ko otsailean, Ukrainako gerra hasi zenean, euskal gizarteak, erakunde publikoek eta Euskadiko enpresa-sareak UNICEF-en erantzun humanitarioarekin bat egin zuten, indarkeriak kaltetutako milioika haurrei laguntzeko.

Honako hauek babestu zuten gure lana Ukrainan: UNICEF Euskal Herriko Batzordeko bazkide eta dohaintza-emaile partikularrek; Larrialdietako Arabako Funtsak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bilboko, Getxoko, Basauriko, Zarauzko, Ermuko eta Berangoko udalek; gure ikastetxe kolaboratzaileek; eta hainbat enpresek, horien artean: EROSKI, Grupo Uvesco, Vidrala, Fagor Taldea, Sidenor, Nervión Agencia de Valores, Aranzazu Hoteles, Irizar, Velatia, Lookiero, Krafft, DanobatGroup eta SORALUCE.



Huracán Ian | Ian urakana

Con el apoyo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo enviamos ayuda de emergencia a Cuba, tras el devastador paso del huracán Ian que ocasionó daños catastróficos en el oeste de la isla.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, larrialdiko laguntza bidali genuen Kubara, uhartearen mendebaldean kalte katastrofikoak eragin zituen Ian urakanaren igarotze suntsitzaileari aurre egiteko.



COVAX

UNICEF lidera el Mecanismo de Acceso Mundial a las Vacunas COVID-19 (COVAX) que distribuyó más de 2800 millones de dosis en 2022, llegando a aquellos lugares menos accesibles y con menos recursos. Para asegurar una distribución equitativa de las vacunas, las empresas CIE Automotive y EROSKI se sumaron a la iniciativa, y el Ayuntamiento de Bilbao apoyó la vacunación en Bolivia.

COVAX Txertoetarako Mundu Mailako Sarbide Mekanismoaren liderra da UNICEF; hartara, 2800 milioi dosi baino gehiago banatu genituen 2022an, baliabide gutxi dituzten eta iristeko zailak diren komunitateen artean. Txertoen banaketa zuzena bermatzeko, CIE Automotive eta EROSKI enpresek bat egin zuten COVAX mekanismoarekin, eta Bilboko Udalak txertaketa babestu zuen Bolivian.

Desnutrición | Desnutrizioa

Con la ayuda de la empresa Nortegas, la Cámara de Comercio de Gipuzkoa y los ayuntamientos de Zarautz y Zaldibar apoyamos los proyectos en el Cuerno de África y en Chad para luchar contra la desnutrición, con el objetivo de contribuir a la reducción de la mortalidad y la morbilidad infantil a través de la prevención y el tratamiento de la desnutrición aguda grave.

Nortegas enpresaren, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren eta Zarautz eta Zaldibarko udalen laguntzarekin, Afrikako adarrean eta Txaden desnutrizioaren aurka borrokatzeko proiektuak babestu genituen, desnutrizio akutu larria prebenituz eta artatuz, haurren heriotza-tasa eta gaixotze-tasa murrizteko helburuarekin.



Fondo de Emergencias | Larrialdietarako Funtsa

El Fondo de Emergencias nos permite dar una respuesta rápida y atender las necesidades más urgentes de las niñas y niños ante cualquier emergencia, desastre natural o conflicto, en cualquier lugar del mundo. Las primeras horas tras una emergencia son vitales, pero la respuesta debe continuar más allá del primer impacto. Laboral Kutxa y ORBEA hicieron aportaciones a este fondo de emergencias en 2022.

Larrialdietarako Funtsak aukera ematen digu haurren beharrei azkar erantzuteko, munduko edozein lekutan gerta daitekeen edozein larrialdi, hondamendi edo gatazkaren aurrean. Larrialdi baten ondorengo lehen orduak hil edo bizikoak dira, baina erantzunak lehen inpaktuaz haratago jarraitu behar du. Laboral Kutxak eta ORBEAk larrialdietarako funts honi ekarpenak egin zizkieten 2022an.

Educación de niños y niñas en el mundo | Haurren hezkuntza munduan

A lo largo de 2022, abordamos el derecho a la educación de las niñas y niños en todo el mundo. En esta labor, destacan tres proyectos que recibieron el apoyo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

2022an, hezkuntza eskubidea sustatu genuen mundu osoan. Lan honetan, aipagarriak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin aurrera eraman genituen hiru proiektuak.



Out of school children

Reforzamos el sistema educativo para acabar con la exclusión escolar de la infancia en situaciones de vulnerabilidad y con la desigualdad de género en las regiones más vulnerables de Senegal.

Hezkuntza-sistema indartu genuen Senegalgo eskualde ahulenetan kalteberatasun-egoeran dauden haurrei eragiten dien eskola-bazterkeria eta genero-desberdintasunari aurre egiteko.

Connect my school

Proporcionamos acceso a la educación online de los niños y niñas del campo de personas refugiadas de Dzaleka (Malawi) y sus alrededores, intercambiando experiencias con los centros escolares vascos, en un proyecto vinculado a la estrategia vasca (H)abian. Dzalekako (Malawi) errefuxiatuen esparruko eta inguruetako haurrei online hezkuntza eskaini genien, euskal ikastetxeekin esperientzia-trukea garatuz, (H)abian euskal estrategiarekin lotuta.

Safe Schools

Dimos acceso a una educación segura, inclusiva y de calidad a las niñas y niños afectados por las crisis humanitarias en las regiones de Gao y Ménaka en Mali.

Kalitatezko hezkuntza segurua eta inklusiboa eskaini genien Maliko Gao eta Ménaka eskualdeetan bizi den krisi humanitarioak kaltetutako haurrei.

PYMES AMIGAS. Escuelas para África

Nuestras PYMES AMIGAS (Areizaga Inmobiliaria, Dēna Toys, Foretax, Hierros Arrate, Kurago Software, Nervión Agencia de Valores y Sarenet) apoyaron esta iniciativa con el objetivo de ayudar a los niños y niñas más vulnerables a acceder a una educación de calidad y garantizarles un entorno seguro y saludable.

PYMES AMIGAS programan parte hartzen duten enpresek *Escuelas para África* ekimena babestu zuten, haur zaugarrienei kalitatezko hezkuntza eskaini eta beraientzat ingurune segurua eta osasungarria bermatzeko.



Salud, agua potable y saneamiento | Osasuna, edateko ura eta saneamendua

Otro de los pilares fundamentales de la acción de UNICEF en el mundo es la mejora de la salud, asegurando, entre otras cosas, el acceso a agua potable y saneamiento.

UNICEFek munduan duen ekintzaren funtsezko beste zutabeetako bat osasuna hobetzea da; horretarako, besteak beste, edateko ura eta saneamendua eskuratzeko aukera bermatu genuen.



© UNICEF/UN0627380

Agua, saneamiento e higiene para personas vulnerables | Ura, saneamendua eta higieena pertsona zaugarrientzat

Fortalecimos los servicios comunitarios de protección infantil y de agua, saneamiento e higiene, para prevenir y responder a la violencia y las prácticas nocivas contra los niños y las niñas en Malawi, desde un enfoque de género y de participación comunitaria con la ayuda de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo. Malawin, haurren aurkako indarkeria eta praktika kaltegarriak prebenitzeko eta horiei erantzuteko, haurren babeserako zerbitzu komunitarioak indartu genituen, ura eta saneamendua oinarri hartuta, eta genero- eta

parte-hartze komunitarioaren ikuspegitik. Horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza jaso genuen.

Programa global de salud de UNICEF | UNICEFen osasun-programa globala

Trabajamos para garantizar que todos los niños y niñas crezcan sanos y libres de enfermedades, con especial atención a la salud materna y del recién nacido, la inmunización y la salud infantil y adolescente. Un año más, el Iguatorio Médico Quirúrgico destinó su apoyo y el de todas las personas con una Póliza Solidaria a este programa. Haur guztiak osasuntsu eta gaixotasunik gabe haztea

bermatzeko lan egiten dugu, arreta berezia jarriz amaren eta jaioberriaren osasunean, eta haurren eta nerabeen immunizazioan eta osasunean. Aurten ere, IMQ enpresak programa horretara bideratu zuen bere laguntza eta poliza solidarioa duten pertsona guztiena.

Prevención COVID-19 | COVID-19aren prebentzioa

Promovimos el lavado de manos y distribuimos kits para prevenir la COVID-19 entre los equipos de salud en Siria, con el apoyo del Ayuntamiento de Donostia. Siriako osasun-taldeetan, eskuak garbitzeko eta higienarako kitak banatu genituen COVID-19a prebenitzeko, Donostiako Udalaren laguntzarekin.



© UNICEF/UN0839363

Programa Empresas por el Cambio

La empresa Hanna Instruments se sumó al proyecto *Empresas por el Cambio*, para actuar en favor de los derechos de la infancia frente a la crisis climática. Hanna Instruments enpresak *Empresas por el Cambio* programarekin bat egin zuen, haurren eskubideak krisi klimatikoaren aurrean babesteko helburuarekin.



Niñas y niños vinculados a fuerzas armadas | Talde armatuekin harremana izan duten haurrak

Ofrecimos atención integral a niños y niñas liberados de grupos y fuerzas armadas y a niños y niñas vulnerables de las comunidades de acogida en Sudán del Sur, con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Hego Sudanen, talde eta indar armatuetatik askatutako hurrei eta harrera-komunitateetako haur zaugarriari arreta integrala eman genien, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Violencia sexual en conflicto | Sexu-indarkeria gatazketan

Trabajamos en la prevención y la respuesta a la violencia sexual y de género contra niñas, niños y adolescentes afectados por el conflicto en República Centroafricana, con el apoyo de las Diputaciones Forales de Bizkaia y Gipuzkoa. El proyecto incluyó un componente importante para la reinserción socioeconómica de las niñas con el apoyo de Irizar.

Afrika Erdiko Errepublikako gatazka eremuetan, haur eta nerabeen aurkako sexu- eta genero-indarkeriari aurre egiteko lan egin genuen, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntzarekin. Proiektuak, gainera, nesken gizarteratze sozioekonomikorako osagai garrantzitsu bat barne hartu zuen Irizar enpresaren laguntzari esker.

Niñas en situación de vulnerabilidad | Neskatoak kalteberatasun-egoeran

Promovimos la prevención, el apoyo y la reinserción de niñas en situaciones de vulnerabilidad en Burundi con el objetivo de contribuir a su empoderamiento para prevenir y responder a la violencia, la explotación y el abuso de toda índole.

El proyecto contó con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia. Burundin kalteberatasun-egoeran dauden neskatoak babestu eta euren birgizarteratzeko prozesuan lan egin genuen, haien ahalduntzean laguntzeko, indarkeria, esplotazioa eta mota guztietako abusua prebenitzeko eta horiei erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin.

Programa global de igualdad de género | Genero berdintasunaren programa globala

En UNICEF trabajamos para combatir todas las formas de discriminación, incluida la discriminación por razón de género, que limita el desarrollo de millones de niñas en todo el mundo. La empresa Velatia apoyó este fondo global de igualdad de género.

Diskriminazio mota guztiei aurre egiteko lan egiten dugu, mundu osoan milioika neskatoren garapena mugatzen duen genero diskriminazioa barne. Genero berdintasunaren programa global horrek Velatia enpresaren laguntza jaso zuen.



3. NUESTRA ACCIÓN EN EUSKADI | GURE EKINTZAK MUNDUAN

Centros referentes en educación en derechos de infancia | Ikastetxe erreferenteak haurren eskubideen hezkuntzan

Cada vez hay más centros educativos comprometidos con los derechos de la infancia y la ciudadanía global, para los que el enfoque de derechos debe estar completamente integrado en la estructura del centro y vivirse en cada decisión, en cada programa y en cada clase. En Euskadi, cinco nuevos centros fueron reconocidos como Centros Referentes en Educación en Derechos de Infancia en 2022: Axular Lizeoa de Donostia, Telleri Alde de Errenteria, Berri- Otxoa de Bilbao, Maristak de Durango y San José Ikastetxea de Nanclares de Oca.

Geroz eta ikastetxe gehiago daude haurren eskubideekin eta herritartasun globalarekin konprometituta. Horientzat haurren eskubideen ikuspegiak erabat integratuta egon behar du ikastetxearen egiturari, erabaki, programa eta klase bakoitzean. Euskadin, bost zentro berri onartu ziren UNICEFen ikastetxe erreferente gisa haurren eskubideen hezkuntzan 2022an: Donostiako Axular Lizeoa, Errenteriako Telleri Alde, Bilboko Berri-Otxoa, Durangoko Maristak eta Langraiz Okako San Jose Ikastetxea.



Por otro lado, los 79 centros educativos colaboradores de UNICEF Comité País Vasco desarrollaron y participaron en varias actividades propuestas en materia de derechos.

Bestalde, UNICEF Euskal Herriko Batzordearen 79 ikastetxe kolaboratzaileek eskubideen arloan proposatutako jarduerak garatu eta horietan parte hartu zuten.



En octubre firmamos un acuerdo con La Salle Sector Bilbao con el compromiso de hacer realidad la Convención sobre los Derechos del Niño en todos los centros de la red: 15 colegios (10 en Euskadi, 2 en La Rioja y 3 en Zaragoza) y dos obras socio-educativas.

Urrian, Bilboko La Salle sektorearekin hitzarmena sinatu genuen, euren sarea osatzen duten 15 ikastetxeetan (10 Euskadin, 2 Errioxan eta 3 Zaragozan) eta bi gizarte- eta hezkuntza-proiektuetan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa gauatzeko helburuarekin.

Ciudades Amigas de la Infancia | Haurren Hiri Lagunak

En Euskadi, son ocho las Ciudades Amigas de la Infancia: Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Pasaia, Ortuella, Berango, Ermua, Irun y Zalla. Ocho municipios comprometidos con el bienestar de la infancia y la adolescencia, que apuestan por impulsar políticas de infancia locales que garanticen el desarrollo pleno de niños, niñas y adolescentes, desde un enfoque de derechos, equidad y participación.

Euskadin, zortzi dira UNICEFen Haurren Hiri Lagunak: Gasteiz, Bilbo, Pasaia, Ortuella, Berango, Ermua, Irun eta Zalla. Haurren eta nerabeen ongizatearekin konprometitutako zortzi udalerrri dira, haurren eta nerabeen erabateko garapena bermatuko duten tokiko haur-politikak sustatzen dituztenak, eskubideen, ekitatearen eta parte-hartzearen ikuspegitik.



En 2022 firmamos dos nuevos convenios para dar impulso a las políticas de infancia en Zumarraga y Andoain como primer paso para que los dos municipios guipuzcoanos se adhieran a la red de Ciudades Amigas.

Era berean, 2022an bi hitzarmen berri sinatu ziren Zumarragan eta Andoainen haurtzaroari buruzko politikak bultzatzeko. Gipuzkoako bi udalerrriak Hiri Lagunen sarean sartzeko lehen urratsa da.



Organizamos el primer encuentro de las Ciudades Amigas de la Infancia en Euskadi con el objetivo de fomentar el trabajo en red, el debate, el intercambio de experiencias y la reflexión sobre los diferentes enfoques hacia un aprendizaje conjunto. Este primer encuentro dio pie a otros dos encuentros más a lo largo del año.



UNICEF Euskal Herriko Batzordeak Euskadiko haurren Hiri Lagunen lehen topaketa antolatu zuen, ekimenaren parte diren udalerrien arteko sare-lana eta parte-hartzea sustatzeko, bai eta eztabaida, esperientzia-trukea eta hausnarketa sustatzeko ere. Lehen topaketa honen ondoren, beste bi bilera gehiago egin ziren 2022an.

Participación infantil | Haurren parte-hartzea

La Convención sobre los Derechos del Niño señala el derecho de los niños, niñas y adolescentes a participar, ser escuchados y dar su opinión sobre los diferentes temas políticos y sociales que puedan afectar a la infancia y adolescencia y puedan tener impacto en sus vidas. En este sentido, quisimos dar voz a las personas jóvenes de nuestra comunidad autónoma y creamos el Grupo Asesor Juvenil de UNICEF Comité País Vasco: GAUR. Conformado por varios jóvenes de entre 14 y 20 años, el grupo persigue el objetivo de fomentar la reflexión sobre los temas que les afectan personalmente y también los que afectan a la sociedad, proponiendo soluciones viables.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak adierazten du haurrek eta nerabeek parte hartzeko, entzunak izateko eta euren iritzia emateko eskubidea dutela, zuzenean eragiten dieten gai politiko eta sozialei buruz. Horregatik, gure autonomia-erkidegoko gazteei ahotsa eman nahi izan genien, eta UNICEF



Creamos, también, dos canales de participación en medios de comunicación: por un lado, los podcasts Generación Z en Cadena SER donde las y los jóvenes opinaron sobre diversos temas de actualidad; y por otro, varios espacios en la web y la emisora Radio Vitoria, donde en colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, el alumnado de los centros Olabide Ikastola y Hogar San José reflexionó sobre los Objetivos de Desarrollo Sostenible.



Creamos GAUR, el Grupo Asesor Juvenil de UNICEF Comité País Vasco conformado por varios jóvenes de entre 14 y 20 años

UNICEF Euskal Herriko Batzordearen Gazte Aholkularitza Taldea sortu genuen, GAUR, 14 eta 20 urte bitarteko hainbat gaztek osatuta

Euskal Herriko Batzordearen Gazte Aholkularitza Taldea sortu genuen: GAUR. 14 eta 20 urte bitarteko hainbat gaztek osatzen dute eta bai pertsonalki bai gizarteari eragiten dieten gaiei buruzko hausnarketa sustatzea dute helburu, konponbide bideragarriak proposatuz.



Era berean, parte hartzeko bi kanal sortu genituen hedabideetan: alde batetik, Cadena SEReko Generación Z podcastak, non gazteek gaurkotasuneko gaiei buruzko iritzia ematen zuten; eta, bestetik, Radio Vitoriaren webgunean, Gasteizko Udalarekin lankidetzan, Olabide Ikastola eta Hogar San José ikastetxeetako ikasleek Garapen Iraunkorreko Helburuei buruz jardun zuten.

En colaboración con la red vasca de Ciudades Amigas de la Infancia realizamos un vídeo donde las y los jóvenes hablaban sobre participación con la colaboración del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

Euskadiko Haurren Hiri Lagunen sarearekin elkarlanean, bideo bat egin genuen. Bertan, gazteek parte-hartzeari buruz hitz egin zuten eta euren esperientziak eta inpresioak partekatu zituzten. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren laguntzarekin.



La Asociación Lagunarte, BBK Family y UNICEF Comité País Vasco, con el apoyo del departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, se unieron por cuarto año consecutivo en el innovador evento GAZTECHANGE. Fue un encuentro en el que seis jóvenes ponentes hablaron en primera persona sobre salud mental, congregando a más de 140 personas presencialmente, y retransmitido vía streaming en eitb.eus. El periodista Xabier Madariaga condujo el acto y la empresa de jóvenes para jóvenes Made In Mars dio apoyo con una comunicación 360°.

Lagunarte Elkartea, BBK Family eta UNICEF Euskal Herriko Batzordea, Eusko Jaurilaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin, laugarren urtez jarraian batu ziren GAZTECHANGE ekitaldi berritzailea antolatzeko. Topaketa horretan, sei hizlari gaztek lehen pertsonan hitz egin zuten osasun mentalarri buruz, 140 pertsona baino gehiago bertaratuz. Xabier Madariaga kazetariak gidatutako ekitaldia streaming bidez eskaini zen eitb.eus-en, eta Made In Mars gazteentzako enpresak topaketaren 360°-ko komunikazioa egin zuen.



Las Juntas Generales de Bizkaia volvieron a acoger en Gernika a las y los jóvenes del territorio para escuchar la Declaración sobre derecho al refugio realizada con la participación de 902 adolescentes de 12 centros educativos de Bizkaia. Acudieron al pleno 242 niños y niñas de entre 12 y 14 años, que quisieron poner sobre la mesa el problema que viven las personas refugiadas, en especial los niños y las niñas.

Bizkaiko Batzar Nagusiek berriro hartu zituzten lurraldeko ikastetxeetako ikasleak Gernikan; alegia, 12 ikastetxetako 902 nerabek babesleku bat izatearen eskubideari buruz egindako adierazpena entzun zuten. Parte-hartzaile guztien ordezkari gisa, 12 eta 14 urte bitarteko 242 haur bertaratu ziren osoko bilkurara, eta errefuxiatuek – bereziki, umeez - bizi duten arazoa mahai gainean jarri zuten.



En Vitoria-Gasteiz desarrollamos cinco talleres de graffiti de manera colaborativa con varios jóvenes sobre "Derechos y Emociones" de la mano de la empresa Fill in Culture, en Gasteiz.

Gasteizen bost graffiti tailer egin genituen gazteekin elkarlanean, azaroaren 20an, "Eskubideak eta Emozioak" jardueraren baitan, Fill in Culture enpresaren eskutik.

Agenda 2030 | 2030 Agenda

Foro Multiagente para la Transición Social y la Agenda 2030 en Euskadi: el objetivo dees analizar, planificar, impulsar y fomentar una Agenda 2030 vasca, mediante la coordinación interinstitucional y la cooperación multinivel. UNICEF Comité País Vasco participa en varios de los órganos que lo conforman.

BBK KUNA 2030 KIDEAK: somos promotores (Aurrerakideak) en el ODS1 que hace referencia al fin de la pobreza, junto con Caritas Bizkaia, con quienes desarrollamos la jornada *Rentas Básicas y nueva fiscalidad para no dejar a nadie atrás*.



Alianza Alavesa de Desarrollo Sostenible 2030: trabajamos en el grupo motor del ODS 1 y del ODS 16, en este último con la puesta en marcha del espacio de reflexión sobre valores e innovación *Círculo de Valores y Derechos Humanos de Álava*.

Comisión de Agenda 2030/ODS de Sareen Sarea: espacio de acción cooperativa entre redes y organizaciones del tercer sector social en Euskadi.

Euskadiko Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa: Foroaren helburua da euskal 2030 Agenda aztertu, planifikatu, bultzatu eta sustatzea, erakundeen arteko koordinazioaren eta maila anitzeko lankidetzaren bidez. UNICEFek Batzordea osatzen duten hainbat organotan parte hartzen du.

BBK KUNA 2030 KIDEAK: Pobreziaren amaierari erreferentzia egiten dion GJH 1eko Aurrerakideak gara. Caritas Bizkaiarekin batera, *Oinarrizko errentak eta fiskalitate berria, inor atzean ez uzteko* jardunaldia antolatu genuen.

Arabako Garapen Iraunkorreko Aliantza 2030: 1 eta 16 GJHen talde eragilean lan egiten dugu eta, besteak beste, *Arabako Balioen eta Giza Eskubideen Zirkulua* hausnarketarako espazio berritzailea jarri genuen martxan.

Sareen Sarearen GJH/2030 Agenda Batzordea: Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sare eta erakundeen arteko ekintza kooperatiborako gunea.

Plan pro-equidad de género | Genero berdintasunaren aldeko plana

Elaboramos el Plan de Acción Estratégico Pro-equidad de género con el apoyo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, con el objetivo de eliminar las desigualdades de género, desarrollar la transversalidad de género y promover las condiciones necesarias para facilitar el empoderamiento de las mujeres.

Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa sortu genuen, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, genero-desberdintasunak ezabatzeko, genero-zeharkakotasuna garatzeko eta emakumeen ahalduntzea errazteko helburuekin.



Acuerdos de Colaboración | **Lankidetzaz hitzarmenak**

Firmamos con el grupo **EITB** y con la **Asociación y el Colegio Vasco de Periodistas** sendos acuerdos de colaboración para promover conjuntamente los derechos de la infancia y la adolescencia en Euskadi y en el mundo, tomando como hilo conductor y transversal la Agenda 2030 y sus Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

EITB komunikazio taldearekin eta **Kazetarien Euskal Elkargoa eta Euskal Kazetarien elkartearekin** lankidetzaz-hitzarmenak sinatu geniten Euskadin eta munduan haurren eta nerabeen eskubideak elkarrekin sustatzeko, 2030 Agenda eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuak ardatz hartuta.



Encuentro de empresas online | **Enpresen online topaketa**

Celebramos el encuentro *La buena nutrición: base de la supervivencia y el desarrollo infantil* dirigido a empresas para tratar el tema de la desnutrición y la mala nutrición. La jornada tuvo tres invitados: Carmen Pérez Rodrigo, especialista en Medicina Preventiva, Nutrición y Salud Pública y la primera mujer en ingresar en la Real Academia de Medicina del País Vasco; Inés Lezama, especialista en el área de nutrición clínica y salud pública y responsable del Clúster de nutrición de UNICEF en Etiopía; e Ignacio Martínez Mendizabal, catedrático del área de Antropología Física en la Universidad de Alcalá de Henares y director de la Cátedra de Otoacústica Evolutiva.

Desnutrizioaren eta nutrizio desgokiaren gaia joratzeko *Nutrizio ona: haurren biziraupenaren eta garapenaren oinarria* topaketa antolatu genuen enpresei zuzendua. Jardunaldian hiru gonbidatu izan genituen: Carmen Pérez Rodrigo, Medikuntza Prebentiboan, Nutrizioan eta Osasun Publikoan aditua eta Euskal Herriko Medikuntzaren Errege Akademitan sartu zen lehen emakumea; Inés Lezama, nutrizio klinikoan eta osasun publikoan aditua eta UNICEFen Etiopiako Nutrizio Klusterraren arduraduna; eta Ignacio Martínez Mendizabal, Antropologia Fisikoaren arloko katedraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean.



MAITIA. Noche solidaria a favor de UNICEF | UNICEFen aldeko gau solidarioa



Coincidiendo con su 110º aniversario, y en el marco del Festival de Cine de San Sebastián (SSIFF), el hotel María Cristina celebró la primera edición de MAITIA, la noche solidaria a favor de UNICEF en la que contó con la asistencia de las personalidades más representativas del ámbito empresarial, cultural,

gastronómico, político y social del territorio. El evento fue conducido por la periodista Reyes Prados, y contó con las actuaciones de Alex Ubago, Kukai Dantza taldea y Quim Moya. La cena fue servida por los restaurantes con Estrellas Michelin Arzak, Elkano, Kokotxa y Mugaritz.

Donostiako Maria Cristina hotelak, bere 110. urteurrenean, UNICEFen aldeko MAITIA gau solidarioaren lehen edizioa ospatu zuen Donostiako Zinemaldiaren (SSIFF) baitan, euskal gizarte-, enpresa-, kultura-, gastronomia- eta politika- arloko hainbat pertsona bertaratuz. Ekitaldia Reyes Prados kazetariak gidatu zuen, eta Alex Ubago, Kukai Dantza Taldea eta Quim Moya artistaren emanaldiak izan ziren. Bestalde, afaria Mitxelin Izarra duten Arzak, Elkano, Kokotxa eta Mugaritz jatetxeek eskaini zuten.

Exposición *Por una infancia sin armas y en paz* | *Bakean eta armarik gabeko haurtzaro baten alde erakusketa*

Con el apoyo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, la exposición mostraba la realidad que viven 300.000 niños y niñas vinculados a grupos armados que hay actualmente en el mundo. Estuvo expuesta en el centro comercial Zubiarte, en la sede de la empresa Sidenor en Azkoitia, en la galería comercial de MercaBilbao y en las sedes de EITB en Donostia y Bilbao.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, erakusketak gaur egun munduan dauden talde armatuei lotutako 300.000 hurrek



bizi duten errealitatea erakutsi zuen. Erakusketa ikusgai izan zen: Bilboko Zubiarte merkataritzagunean, Sidenor enpresaren Azkoitiko egoitzan, MercaBilbaoren galeria komertzialean eta EITBko Donostiako eta Bilboko egoitzetan.

Premio Ramón Rubial Saria



El jurado de la 15ª edición de los Premios Ramón Rubial reconoció a UNICEF Comité País Vasco su contribución y compromiso para cambiar la vida de las niñas y los niños más vulnerables y avanzar en la defensa de los derechos de la infancia. Ramón Rubial sariaren 15. edizioako epaimahaiak UNICEF Euskal Herriko Batzordeari aitortu zion haur zaugarrienen bizitza aldatzeko eta haurren eskubideen defentsan aurrera egiteko egindako ekarpena eta konpromisoa.

Premios Bihotza Sariak



Los Bihotza Sariak reconocen a las empresas y organizaciones cuyo eje es la solidaridad y el compromiso con la responsabilidad social. UNICEF Comité País Vasco recibió el premio en la categoría de "Bihotza Solidario". Elkartasunarekin eta gizarte erantzukizunarekin konpromisoa erakutsi duten enpresa eta erakundeak saritzen dituzte Bihotza Sariak. UNICEF Euskal Herriko Batzordeak "Bihotza Solidarioa" kategorian jaso zuen golardo 2022an.

4. 2022 EN CIFRAS | 2022 ZENBAKIETAN



26.700

PERSONAS SOCIAS |
BAZKIDEAK



204,43 €

APORTACIÓN MEDIA ANUAL
DE LAS PERSONAS SOCIAS |
BAZKIDEEN EKARPENAK
BATEZ BESTE



8

CIUDADES AMIGAS DE LA
INFANCIA | HAURREN HIRI
LAGUNAK



6

CENTROS REFERENTES EN
EDUCACIÓN EN DERECHOS |
IKASTETXE ERREFERENTEA
HAURREN ESKUBIDEEN
HEZKUNTZAN



79

CENTROS EDUCATIVOS
COLABORADORES |
IKASTETXE
KOLABORATZAILEAK



12

INSTITUCIONES PÚBLICAS
COLABORADORAS |
INSTITUZIO PUBLIKO
KOLABORATZAILEAK



27


EMPRESAS, FUNDACIONES
Y ENTIDADES ALIADAS |
ENPRESA, FUNDAZIO ETA
ENTITATE ALIATUAK

INGRESOS | DIRU-SARRERAK

4.728.813,61 €

No incluye las
donaciones voluntarias
de las personas socias,
ni subvenciones a la
explotación

Zifra honek ez ditu
barne hartzen bazkideen
borondatezko dohaintzak
eta ustiapenerako
diru-laguntzak



■ **Públicos | Publikoak 2.541.833 €**

■ **Privados | Pribatuak 2.186.980,61 €**

FOTOS: UNICEF Comité País Vasco
ARGAZKIAK: UNICEF Euskal Herriko Batzordea



hartzaro bakoitzarentzat

Para cada niño y cada niña.

Quien quiera que sea.

Donde quiera que viva.

Todos merecen una infancia.

Un futuro.

Una oportunidad justa.

Por eso existe UNICEF.

Para todos y cada uno de los niños,

niñas y adolescentes.

Trabajando todos los días,

en 190 países y territorios.

Alcanzando a los más inalcanzables.

A quienes están más lejos de la ayuda.

A los más vulnerables.

A los más olvidados.

A los más excluidos.

Es por quienes permanecemos.

Y nunca nos rendimos.

Información de contacto | Harremanetarako informazioa:

UNICEF Comité País Vasco

UNICEF Euskal Herriko Batzordea

Calle Iparraguirre Kalea 9, 1º

48009 Bilbao

Calle Miracruz kalea, 32

20001, Donostia-San Sebastián

94 424 48 55

paísvasco@unicef.es

 [@unicef_eus](https://twitter.com/unicef_eus)